


Ilunorduak eta argilaurdenak

liburua lantzeko proposamen didaktikoa

Liburuaren fitxa



Izenburua: Ilunorduak eta argilaurdenak

Idazlea: Joxantonio Ormazabal

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Argitaletxea: Elkar

Argitalpen data: 2007

Orrialde kopurua:

Laburpena

Material poetikoz egindako liburua, edo poeta batek egindako etxea. Leiho batzuetatik argia sartzen da, eta beste batzuetatik iluna. Tristura eta itzaropena, bi gauzak aurkituko ditu atetik barrura sartzen denak. Haurrentzat bezala helduentzat ere atek irekita dauzka etxe honek. Marra poetikoak erabiliz, dotore dekoratu du etxea Elena Odriozolak. Merezki du ikustea. Gauez eta egunez irekita dago.

Zergatik irakurri liburua

"Joxan Ormazabalen poesia liburu honek, bere lan askok bezala, tradizioetik edaten du, jolasetik, hitz jokuetatik, antzinako kanta eta istorioetatik baina gaur egungo istorioak kontatzeko, maitasun eta sentimendu handiko poemak esateko.

Bizitzaren garapena eta bizitzeko kontu asko ageri dira liburuko poema hunkigarrietan. Estiloen ugaritasunak, errima eta hizkuntzaren aberastasunak are ederrago egiten dute gizaki baten bizitzaren errekorridoa egiten duen liburu hau.

Poemen sinpletasunak ez du ezkututzen hauek duten zama eta barne gogoetarako indarra."

Irakurri aurretik

Motibazioa pizteko jarduerak

1.1. Bada, Sautrelan bideo bat Joxan Ormazabali egina:

<http://www.eitb.eus/eu/bideoak/osoak/401976/sautrela-joxan-ormazabal/>

Eta bada, berari eginiko elkarrizketa bat Argia aldizkarian ere: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2199/joxan-ormazabal/osoak>

Bide batez, aukera hau aprobeitza daiteke hitz egiteko gaur egungo gazteek zer, nola eta noraino ezagutzen duten euskal prentzaz.

1.2. Joxan Ormazabalek hainbat eta hainbat haur kantaren letrak idatzi zituen, hauek dira horietako batzuk, ezagutzen?

*Astoa ikusi nuen betaurrekoekin,
buruan txapela ta gabardinarekin,
ile luzea eta bibotearekin
hizketan egon nintzen atzo berarekin.*

*Astoak esan zidan triste zegoela,
oso zatarra zela bere ikastola,
berak gure gelara etorri nahi zuela,
gure artean ondo konponduko zela.*

*Baietz esan nion nik, lasai etortzeko,
arkatza eta bloka dendan erosteko,
astoa izan arren, trankil egoteko,
asko ikasi eta txintxo portatzeko.*

*Astoa etorri zen hurrengo goizean,
jantzi polit bat zeukan jantzirik soinean.
Maisuak esan zion: eseri lurrean,
astotxo, ez baitzera kabitzen mahaiean.*

*Hondartzako eguna iritsi zenean
astoa portero ta denak futbolean.*

*Tximeleta mendian
lore baten gainean,
hegoak geldu zeuzkan
gaixoturik zegoen.*

*Tximeleta bakarrik,
tximeleta tristerik.
Nork nahi luke
sendatu,
tximeletatxo hori?*

Tximeleta mendian...

*Lorez lore hor dabil
burrin-burrin erlea.
Ikusiko ote du
tximeleta gaixoa?*

Tximeleta mendian...

*Erleak ikusirik
tximeleta gaixorik,
"nik sendatuko
zaitut"
dio tximeletari.*

*Tximeleta mendian
lore baten gainean.
Poz-pozik esan zion:
"mila esker, erlea".*

1.3. Bizitzak denetik duela dio Ormazabalen poema batek, gauza onak eta txarrak. Ondorengo hauek zer dira zure ustez, onak ala txarrak?

Ura txorrotatik ateratzea
Argia botoia sakatuz piztea.
Ikastegira etortzea.
Leka patatak jateko orduan.
Aginduak betetzea.
Aginduak ematea.
Ibaian bainatzea.

1.4. Arrosak arantzak eta loreak ditu, bizitzak bezala. Batzuetan lorea lortzeko arantza baztertu behar da, edo gainditu. Zein "arantza" utzi behar duzu alhora ondorengo "loreak" lortzeko?

Jende aurrean hitz egiteko. (lotsa)
Dantza ondo egiteko. (irmotasuna)
Korrikalari ona izateko. (jariakortasuna)
Lagunek kasu egiteko. (pazientzia???)
Egungo mendi tontorretik ikusteko. (nagikeria)
...

Irakurtzeko testuak

1-

*Ordu gozoak
ordu garratzak
denetik du bizitzak.
Baina gaur tori loreak
eta utzi arantzak. (8. or.)*

2-

*Nik badakit
denbora gelditzen
gerra gorriak
bake zuri bihurtzen
gorrotoa maitasunez
margotzen
gosea janariz hornitzen
gaixoak sendatzen
hildakoak pizten.
Nik badakit
gezurrak esaten
eta egiak balira bezala
amesten. (27. or.)*

3-

*Urpekariak
aldika-aldika
burua ateratzen du
ur azpitik.
Nik ere
nahi nuke
ilunordu bakoitzeko
argilaurden bat,
arnasa hartzeko. (33. or.)*

4-

*Tren batean
zer da garrantzitsuena?
Gurpilak.
Ez, beste tren batekin
talka ez egitea.
Maitasunean
zer da garrantzitsuena?
Musuak.
Ez, gurpilak ez gelditzea.
Bizitzan
zer da garrantzitsuena?
Osasuna.
Ez, maitasunaren trena. (43. or.)*

5-

*Esango dizut
behin entzun nuena:
asko daukana baino
aberatsago dela
gutxi behar duena.
Esango dizut
behin entzun ez nuena:
gutxi daukana baino
behartsuago dela
asko behar duena. (44. or.)*

Irakurri ondoren

Literatura hezkuntza eta sorkuntza

1. Poema

1.1. Bost lerrotako poemak honek bi parte ongi berezituak ditu, lehen hiru lerroak eta ondorengo biak. Lehen hirurak berdin mantenduta eman bukaera berri bat poemari.

1.2. Alderantziz ere egin daiteke, amaierako bi lerroak mantenduta, hasierako hirurak aldatu.

1.3. Poema hau ez da haiku bat. Haikuek hiru lerro dituzte 5/7/5 silabakoak.

*Haize fin batek
Miazkatu aurpegia,
Izozkia da.*

Baina aproposa da *haikuen* estiloko poema laburrak egiteko.

Haikuak nola landu ikusteko, Behinola aldizkariak 8. Zenbakian badago J. K. Igerabideren artikulu bat, Haur poesiaz gogoeta zenbait, oso aproposa eta eredu eta adibide askorekin (<http://www.galtzagorri.eus/euskara/behinola/8?p=4>).

2. Poema

2.1. Berregin poema baina hutsuneak beste modu batean betetzen.

*Nik badakit
xxxxxxxxxxxxxxxx
xxxxxxxxxxxxxxxx
xxxxxxxxxxxxxxxx
gorrotoa xxxxxxxxxxxx
xxxxxxxx janariz
hornitzen
lagunak xxxxxxxxxxx
xxxxxxxx maitatzen.
Nik badakit
gezurak esaten
eta egiak balira bezala
amesten.*

2.2. Gezurra eta egia esaera zaharretan askotan ageri diren terminoak dira. Ea ongi lotzen dituzun hauek:

Gezurrak	gezur gutxi
Herrena zangotik	laster antzemanak dira
Esaera zaharrak	gezurria mihitik
Gezurra eta herrena	buztana labur

3. Poema

3.1.

*Urpekariak
aldika-aldika
burua ateratzen du
ur azpitik.
Nik ere
nahi nuke*

Bukatu poema. Zer nahiko zenuke zuk urpekariak bezala aurrera egiteko?

3.2. Poetak honako hau dio:

*ilunordu bakoitzeko
argilaurden bat,*

Ilunordua eta *argilaurdena* idazleak asmatutako hitzak dira. Zer esan nahi du hitz horiekin? Denbora erabili beharrean beste kontzeptu bat erabiliz nola esango zenuke ilun.... Bakoitzeko argi.... Bat.

4. Poema

4.1. Nola definituko zenuke poema hau?

4.2. Maitasunezko poema asko idatzi izan dira. Baita kankar ere. Baten bat ezagutzen?

4.3. Maitasuna eta umorea elkarren eskutik helduta ager daitezke, ezagutzen duzu Jon Suarezren poema hau?

*Bat/ maite nau/ bi/ ez nau maite/ hiru/ maite nau/ lau/ ez nau maite/ bost/ maite nau/ sei/ ez nau maite/
zazpi/ maite nau/ zortzi/ ez nau maite. / Ez nau maite. / Armiarmak ez nau maite. / Gainera orain ez dauka
hankarik. (Ilbetea dilindan, Pamiela)*

4.4. Baita haikuen trinkotasunekoak (K. Linazaroso, Zein beste mundukoa, Elkar):

*Zenbat bidaide / Desio izeneko / tranbiaren zain!
Maiteko zaitut / isilik; / aingeru-hitzik / ez baitakit.
Itxaron nazan,/ mitxigo: / hiru alboan / zerua zeruago.*

5. Poema

5.1. Azken poeman esaera zahar batekin jolasten du, *Asko daukana baino aberatsago da gutxi behar duena.*

Antzeko jolasak egin ondorengo esaera zaharrekin:

Guztien adiskide dena, ez da inorena.
-Bakoitzak berea, munduko legea.
-Gutxi ikusi, gutxi ikasi.
-Zor zaharra, zor txarra.
-Gauz egiten dena, egunez ikusten da.
-Ergela ala jakintsu, isilik berdintsu.
-Nahi duenak irakatsi, lehenago behar du ikasi.



Lan hau [Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia](#) baten mende dago.

Honakoak egin ditzakezu:

- Partekatu — partekatu, kopia eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan.
- Moldatu — nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu edozein xedetarako, baita merkataritza-xedetarako ere.

Honako baldintzen arabera:

- Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.
- PartekatuBerdin — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.